



AIARALDEKO EUSKALGINTZA

**KONTSEILUA**



PRENTSA OHARRA 2022/0/30

## HAUTAGAI EUSKALDUNAK

Gaur ekainak 29, Laudioko Faktorian hedabideen aurrean, **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak** ekimen berri bat aurkeztu du, eskualdeko hainbat pertsoan ezagunen babesarekin. bertan izan dira:

- **Asier Amondo** Korrikako koordinatzailea
- **Patxi Iturregi** idazlea
- **Aintzane Pradera** Arabako AEK-ko koordinatzailea
- **Aaron Garmendia** kirolaria
- **Belate Olabarria** Bizkaiko Bertsolari Elkarteko presidentea
- **Aiara Murga** Laudio Ikastolako lehendakaria
- **Natxo Urkixo** irakaslea
- **Ander Fernandez** Kirikiño aisialdia
- **Beñi Ibargoitia** Arrankudiagako Gizarte Etxea
- **Maite Benito** irakaslea
- **Igor Lujanbio** irakaslea

Ekitaldian Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluko lehendakari **Aitor Fernandez de Pinedok** honako adierazpena irakurri du:

**Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**k gure eskualdean euskararen normalkuntza erdiestea du xede. Horretarako, etengabe eta alor orotan aurrera-pausuak eman beharra dago. Urrats horiek egitera bultzatu eta lagundu nahi du 44 entitate bildu eta 9 udalerritan lan egiten duen gure elkarteak.

Gaur, hemen, azken hilabeteotan mamitu dugun ekimen berri bat aurkeztera gatoz, eskualdeko hainbat pertsona ezagunen babesarekin.

Apiriletik, Aiaraldeko 9 udaletan ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako arduradunekin, bitariko bilerak izan ditugu. EAJ, EHBildu, PSE, PP, ADIE, OMNIA, Okondo Aurrera, Aiara Batuz eta Orain Amurrio gure proposamena entzutera eseri dira eta hori oso modu positiboan baloratzen dugu. Bilerotan, gaur publikoki aurkezten dugun dokumentua helarazi diegu.



2023an Udal Hauteskundeak datoz eta egun, alderdi politikoak, hautesle

zerrendak prestatzen ari dira. Testuinguru horretan garatu da ekimen hau.

Udalak herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak dira. Udal langileekin batera, alkate eta zinegotziak dira pieza klabea, herritarrek Udalarekin dituzten harremanetan **hizkuntz eskubideak** bermatuta izan ditzaten.

**Hautagai euskaldun** batek hizkuntza eskubideak bermatzen ditu, gutxienez elebiduna baita euskalduna, herritar guztiei bere hizkuntzan entzun, ulertu eta erantzuteko gai.

Agintariak **erreferente** ere badira herritarrentzat eta eredu izan behar dute, baita euskararen alorrean ere.

Horregatik guztiagatik, **hautagai euskaldunak** behar ditugu.

Alor honetan, gure eskualdean aurrera-pausuak eman daitezen, alderdi politikoei zuzenean helarazitakoa publiko egiten dugu.

**Bat.** Beharrezkoa deritzogu, hauteskunde zerrendak publiko egitean, hautagai bakoitzaren informazioarekin batera pertsona hori **euskalduna** edo **euskaldun hartzaillea** den adieraztea. Transparentzia ariketa bat izateaz gain, herritarrok bozka eskubidea ahalik eta informazio osatuenarekin gauzatu dezagun ezinbesteko da.

**Bi.** Informazio hori eskaintzen duten zerrendak **modu positiboan** baloratuko ditugu publikoki, euskaldun kopuruaren gaineratik, informazioa emate hutsak euskarari balioa eta garrantzia ematea baitakar.

**Hiru.** Hautesle zerrendak publiko egitean, zerrenda bakoitzari **nota** bat jarriko diogu, hautagai euskaldunen presentziaren arabera. Neurketa, gaur publiko egiten dugun dokumentuak jasotzen duen puntuaketa sistemaren bidez egingo dugu. Formula horren arabera zerrenda batek ezingo du gainditu alkategaia erdaldun elebakarra baldin bada. Nota hori, noski, publiko egingo dugu.

Aurrera-pausuak nahi ditugu euskararen normalkuntzan, hizkuntz eskubideak udaletan bermatzea nahi dugu, horregatik, ezinbestean, **hautagai euskaldunak** nahi ditugu.

Azkenik, ekimen lokala izanagatik, beste eskualdeetara ere zabaldu daitekeela uste dugu eta horretara animatu nahi ditugu Euskal Herriko eragile ezberdinak.



Guztion bultzada behar dugu euskarak aurrera egin dezan, euskaldunok aurrera egin dezagun.

## **Euskaraktibatu!**

Laudio Faktoria, 2022ko ekainaren 29an

Gehiago jakiteko:

<http://aiaraldekoeuskalgintza.eus/>

<https://aiaraldea.eus/komunitatea/AiaraldekoEuskalgintzaKontseilua>

kontaktua: **info@aiaraldekoeuskalgintza.eus** tlf. **688 86 29 49**